

Euskarazko prentsa elkarlanerako estrategien bila

Alazne Aiestaran
Komunikazio Zientzietan doktoregiaia

Esparru zabal bezain plurala da, gaur egun, euskaraz argitaratzen den prentsarena. Zabala, Euskal Herri osora hedaturik dagoelako, plurala edukiz, formatuz eta ildo editorialez, kolore eta ezpal guztietako argitalpenak direlako argia euskaraz ikusten dutenak. Tokian tokiko eta prentsa nazionalaren arteko elkarlana eta bizikidetzaz aztertzen duen ikerketaren ondorioak jaso dira hurrengo lerroetan. Bertan, euskarazko tokian tokiko prentsaren lana, euskarazko prentsa nazionalaren barnean sartzeko aukerak eta bideak aztertu nahi izan dira. Gaur egun, informazio lokalaren inguruan gauzatzen ari diren proiektuak zein diren eta etorkizunean, esparru horretan nagusituko diren estrategiak ezagutzeko aukera emango digu.

Nowadays, Basque print media is both far-reaching and colourful. In addition to a rich composition of editorial styles and contemporary content, Basque local and national media reach all public sectors throughout the land. The following research analyzes whether or not there is a correlation between the local and the national media as well as whether or not there is an overlap in their coverage of events and distribution. We will also examine the current projects and future strategies around the basque local media.

80ko hamarkadaren bukaeran hasi zen herrietako aldizkarien urrezko aroa *Arrasate Press* eta *Ttipi-Ttapa* aldizkariekin. Eredu horri jarraituz, hurrengo urteetan hainbat eta hainbat izan ziren Euskal Herri osoan argia ikusi zuten agerkariak. Urteek aurrera egin ahala, hainbat herri eta bailaratan finkatuz joan dira bertako aldizkariak eta milurteko berriarekin batera, berrikuntzak etorri dira. Egitasmo sendo eta profesionalagoak sortu dira: egunkari-papera erabiltzen hasi da tabloide formatuan, maiztasunak areagotu dira, astekariak indartuz doaz, astean bitan kaleratzen diren agerkarien formula erabiltzen hasi da eta egunerokoak agertu dira tokian tokiko prentsaren eskutik. Halaber, 2003an Euskarazko Komunikazio Taldea SAK *Euskaldunon Egunkariak* 2001ean hasitako bideari eutsi zion eskualdeetako egunkariak kaleratuz, euskara elkarte, herri-aldizkari eta gizarte-eragileekin elkarlanean.

Elkarlana izanik ikerketa honen abiapuntua, prentsa nazional eta tokian tokiko prentsaren artean orain arte egindakoaren eta etorkizunean egin daitekeenaren inguruko ondorioak biltzen ditu lan honek. Erabilitako metodologiaren azalpen laburraren ostean, ikerlanaren emaitza esanguratsuenak azaldu ditugu.

Metodologia

Ikerketa zientifikoak egiteko erabili ohi diren ikerketa-eredu nagusien artean —kuantitatiboa eta kualitatiboa— ikerketa kualitatiboa egitea hobetsi nuen, lan honetan protagonisten informazioa eta iritzia jasotzea baitzen giltzarria. Ildo horretatik, informazioa biltzeko eta ondorioak ateratzeko, 10 elkarriketa egin ziren, hainbat herritako prentsaren ordezkarien, prentsa nazionalaren ordezkarien eta Administrazioan lan egiten duten teknikarien iritzia jasotzeko. Elkarriketa guztiak banakakoak izan ziren eta aukeraketa egiterakoan, elkarlanaren inguruan izan diren esperientziak jasotzeko ahalegina egin zen. Era berean, Hegoaldeko eta Iparraldeko errealitateak islatzeko, arlo bakoitzeko protagonista nagusiak bilatzea zen helburu nagusia. Beraz, honako hauek osatu zuten elkarriketa-zerrenda: Jose Mari Muxika (Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioko lehendakaria), Inaxio Arregi (Deba Goieneko Goiena Komunikazio Kooperatibako zuzendari nagusia), Amando Hernandez (Tolosaldeko Galtzaundi Euskara Elkartearen lehendakaria 2003ko apirilera arte), Fernando Muinozguren (Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioko lehendakari ohia, Zarauzko *Txaparro* aldizkariaren sustatzailea eta Eibarko ...*Eta Kitto* aldizkariaren sustatzailea), Peio Jorajuria (Baionako *Herria* aldizkariko erredaktorea), Garbiñe Petriati (Sakanako *Guaixe* aldizkariko koordinatzailea), Nerea Azurmendi (*Zabalik* astekariko erredakzio-burua, 1999tik 2003ko udazkenean arte), Martxelo Otamendi (*Berria* egunkariko zuzendaria), Edurne Ramon (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Saileko teknikaria) eta Pello Pellejero (Nafarroako Gobernuaren Prentsa Bulegoko kazetaria).

Era berean, lan hau biribiltzeko, gaiaren inguruan orain arte egin diren lan eta tesiak kontsultatu dira, herrietako aldizkari eta prentsa nazionalaren inguruko agerkariak eta bilakaera ezagutzeko. 2003ko otsailaren 20an Euskaldunon Egunkariaren itxieraren ondorioz, ezinbestekoa izan da, eguneroko prentsa nazionalaren jarraipena egitea, etengabe izan diren aldaketen berri jasotzeko. Azkenik, txostenak eta barne-buletinak irakurri eta aztertu dira, batzuen eta besteen arteko iritzia alderatzeko eta tartean dauden protagonista nagusien argudioak ezagutzeko.

Ikerketa kuantitatiboa datu-bilketa puntualak egiteko erabili da: Maiztasuna kontuan hartuz Euskal Herriko herri-aldizkari edo tokian tokiko aldizkarien zerrenda osatzeko eta Topaguneko bazkide diren aldizkarien zerrenda osatu eta horiek guztiak duten tirada osoa euskarazko prentsa nazionalaren tiradarekin konparatzeko.

Euskarazko prentsa: tokian tokiko prentsa eta nazio-prentsa, bizikidetzeta eta elkarlana

Gaian sartzeko, ezinbestekoa da gaur egungo euskarazko prentsaren diagnosi orokorra egitea. Horretarako, lagungarria izan daiteke zenbait datu eta egitasmo ezagutzea.

Proiektu hau osatzeko bildutako datuen arabera, Euskal Herrian orotara, euskarazko hutsez hurbileko informazioa jorratzen duten 68 aldizkari daude. 23 hilabete-kariak dira, 8 hamaboskariak, 13 astekariak eta bost (*Hernaniko Kronika, Tolosaldeko Hitza, Oarsoaldeko Hitza, Urola-Kostako Hitza eta Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*) egunkariak dira, astean 6 aldiz kaleratzen direnak, hain zuzen ere. Gainerako aldizkariak bestelako maiztasunak dituzte, hots, bi hilerik behin, hiru hilerik behin edo urtean 2, 3 edo 4 aldiz kaleratzen dira.

Hurbileko informazioa lantzen duten aldizkarien zerrenda

Izena	Argitalpen-eremua	Maiztasuna	Tirada
AIKOR	Txorierrri	Hilabetekaria	4.750
AIURRI	Andoain	Hamaboskaria	1.800
AKATZ	Bermeo	Hamaboskaria	2.300
ANBOTO	Durangaldea	Astekaria	8.000
ARETXAGAZETA	Aretxabaleta, Ezkoria	Astekaria	4.100
ARRANONDO	Ondarroa	Hilabetekaria	3.500
ARRASATE PRESS	Arrasate, Aramaio	Astekaria	7.100
ARTANDEPE	Arrigorriaga, Zaratamo, Arrankudiaga eta Ugao	Hilabetekaria	5.000
ARTZAPE	Getaria	Hilabetekaria	0 950
AXULAR	Burlata	Urtean lautan	2.500
AZPEITIAN ZER	Azpeitia	Hilabetekaria	3.500
BALEIKE	Zumaia	Hilabetekaria	2.300
BARREN	Elgoibar, Mendaro	Astekaria	4.000
BEGITU	Arratia	Hilabetekaria	4.500
BERBARO	Arrigorriaga	Urtean lautan	4.000
BERRIETAN BLAI	Bermeo	Hilabetekaria	6.000
BERRIGARA	Bergara, Elgeta, Antzuola	Astekaria	6.100
BERRIKETAN	Deba	Hilabetekaria	0 500
BERTON	Bilbo-Mahatserria	Hilabetekaria	1.200
BOLO-BOLO	Ondarroa	Urtean lautan	1.200
DANBOLIN	Zestoa	Hilabetekaria	1.300
DROGETENITTURRI	Ermua, Mallabia	Hilabetekaria	1.650
DZINGO	Lekeitio	Urtean hirutan	2.000
EL SOCIAL	Bilbo	Hilabetekaria	5.000
ETA KITTO	Eibar	Astekaria	7.300

EUP	Ezkio-Itsaso	Bihilabetekaria	0 200
EUTSI	Gernika	Hilabetekaria	1.200
GALTZAUNDI	Tolosa	Hamaboskaria	5.500
GEU GASTEIZ	Gasteiz	Hilabetekaria	2.500
GOIBEKOKALE	Elgeta	Astekaria	0 650
GOIENKARIA	Deba Goiena	Astekaria	21.500
GOIERRITARRA	Ordizia	Hamaboskaria	7.300
GUAIXE	Urdiain	Astekaria	4.000
HERNANIKO KRONIKA	Hernani	Astean seitan	3.200
HERRIA	Baiona	Astekaria	3.000
HONDARRIBIA	Hondarribia	Hilabetekaria	1.200
IRUNERO	Irun	Hilabetekaria	3.500
IRUTXULO	Donostia	Astekaria	5.000
KALAPUTXI	Mutriku	Hilabetekaria	1.700
KANTILAPE	Itsasondo	Urtean hirutan	0 250
KARKARA	Orio	Hamaboskaria	2.700
KONTZEJUPETIK	Oñati	Hilabetekaria	3.800
LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA	Lea-Artibai eta Mutriku	Astean seitan	5.500
LURRA	Bera	Urtean lautan	6.000
MALIOPE	Araitz	Hilabetekaria	1.300
MARMARI	Leitza	Urtean bitan	900
MAXIXATZEN	Azkoitia	Astekaria	1.800
MURUGARREN	Gares	Urtean lautan	250
NOAUA	Usurbil	Hamaboskaria	2.600
NONTZENBARRI	Mungia	Bihilabetekaria	1.000
OARSOALDEKO HITZA	Oarsoaldea	Astean seitan	5.000
OIARTZUN	Oiartzun	Urtean lautan	3.000
OTAMOTZ	Urretxu	Hilabetekaria	2.000
PIL-PILEAN	Soraluze	Hamaboskaria	1.850
PREST	Deustualdea	Astekaria	2.000
PULUNPE	Larraintza	Urtean lautan	1.200
TOLOSALDEKO HITZA	Tolosaldea	Astean seitan	7.500
TTIPI-TTAPA	Bera	Hamaboskaria	7.100

Gipuzkoa da aldizkari gehien batzen dituen herrialdea. Hala ere, Bizkaian eta Nafarroan ugaritu egin dira tokiko aldizkariak azken hiru urteotan. Iparraldean eta Araban, ordea, oso gutxi dira hurbileko informazio orokorra jorratzen duten aldizkariak. Araban *Geu Gasteiz* hilabetekaria eta Iparraldean *Herria* astekaria baino ez daude.

Tokiko aldizkarien zerrenda herrialdeka

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	IPARRALDEA	NAFARROA
Geu Gasteiz	Aikor	Aiurri	Herria	Axular
	Akatz	Aretxagazeta		Guaixe
	Anboto	Arrasate Press		Lurra
	Arranondo	Artzape		Maliopé
	Artandape	Azpeitian Zer		Marmari
	Begitu	Baleike		Murugarren
	Berbaro	Barren		Pulunpe
	Berrietan Blai	Berrigara		Ttipi-Ttapa
	Berton	Berriketan		
	Bolo-Bolo	Danbolin		
	Drogeteniturrí	Eta Kitto		
	Dzingo	Eup		
	El Social	Galtzaundi		
	Eutsi	Goibekokale		
	Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza	Goienkaria		
	Nontzenbarri	Goierritarra		
	Prest	Hernaniko Kronika		
	Txirritxola	Hondarribia		
	Txoriberri	Irunero		
	UK	Irutxulo		
	Zer diño	Kalaputxi		
	Zorrotz-morrotz	Kantilape		
		Karkara		
		Kontzejupetik		
		Maxixatzen		
		Noaua		
		Oarsoaldeko Hitza		
		Oiartzun		
		Otamotz		
		Pil-Pilean		
		Tolosaldeko Hitza		
		Txaparro		
		Txintxarri		
		Urola-Kostako Hitza		
		Uztarria		
		Ze berri		
1	22	36	1	8

Bestalde, gaur egun, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioan 34 aldizkari dira bertako bazkide.

Hona hemen gaur egun Topagunearen barnean dauden tokian tokiko aldizkarien zerrenda.

<i>Izena</i>	<i>Herri/eskualdea</i>
1. Aikor aldizkaria	Txorierri
2. Aiurri , Beterri-Aiztondoko aldizkaria	Beterri-Aiztondo
3. Anboto aldizkaria	Durangaldea
4. Aretxagazeta aldizkaria	Aretxabaleta
5. Arrasate Press aldizkaria	Arrasate
6. Artandape	Arrigorriaga, Zaratamo, Arrankudiaga, Ugao
7. Artzape aldizkaria	Getaria
8. Baleike aldizkaria	Zumaia
9. Barren Elgoibarko eta Mendaroko aldizkaria	Elgoibar, Mendaro
10. Begitu aldizkaria	Arratia
11. Berrigara aldizkaria	Bergara
12. Berton , Bilboko Mahatserriko aldizkaria	Mahatserria
13. Danbolin aldizkaria	Zestoa
14. Drogeteniturri aldizkaria	Ermua, Mallabia
15. Eta Kitto! aldizkaria	Eibar
16. Galtzaundi aldizkaria	Tolosaldea
17. Gaztetxulo aldizkaria	Donostia
18. Geu aldizkaria	Gasteiz
19. Goienkaria aldizkaria	Deba Garaia
20. Goierritarra aldizkaria	Goierri
21. Guaixe aldizkaria	Sakana
22. Hernaniko Kronika egunkaria	Hernani
23. Irutxulo aldizkaria	Donostia
24. Kalaputxi aldizkaria	Mutriku
25. Karkara aldizkaria	Orio
26. Maxixatzen aldizkaria	Azkoitia
27. Noaua! aldizkaria	Usurbil
28. Pil-Pilean aldizkaria	Soraluze
29. Prest aldizkaria	Deustua
30. Ttipi-Ttapa aldizkaria	Bera
31. Txaparro aldizkaria	Zarautz
32. Txintxarri aldizkaria	Lasarte-Oria
33. UK aldizkaria	Urbe-Kosta
34. Uztarria aldizkaria	Azpeitia

Prensa nazionalari dagokionez, euskaraz eta informazio orokorra lantzen dutenen artean, *Berria*, *Argia*, *Zabalik* eta 2003ko urriaren 7an argia ikusi zuen *Aldaketa Hamasei* daude gaur egun.

Topagunearen datuen arabera, tokian tokiko aldizkarien tirada argitaraldi bakoitzeko (hilero, hamabostero zein astero kasu bakoitzean), prentsa nazionalarena baino 5 aldiz handiagoa da. Guztira 160.000 etxetara iristen da tokiko prentsa. Urteko produkzioari begiratuz ordea, prentsa nazionalak milioi bat ale gehiago kaleratzen du. Kontuan hartu behar da, aldizkari lokal gehienak doan banatzen

direla eta, askok, banaketa masiboa egiten dutela. Euskarazko prentsa nazional guztia, aldiz, saldu egiten da eta horren ordezkarien aburuz, tirada eta irakurlearen interesari erreparatuz, salmentak datu fidagarriagoak eskaintzen ditu. Hau da, produktua doan izateak, tirada bermatzen du, baina irakurlearengan duen eragina eta interesa neurtzea zailagoa dela diote prentsa nazionalean aritzen direnek.

Tokian tokiko aldizkarien garapena: proiektu sendo eta profesionalak

Ikerketa honetan parte hartu duten protagonisten aburuz, azken 2-3 urteetan eskualdeko eta bailarako informazioak garrantzia irabazi du. Gero eta egitasmo gehiago eta sendoagoak sortzen ari dira tokiko aldizkarien inguruan, eskualdeetako eta bailaretako informazioa jorratzeko. Horren adierazle, Durangaldeko *Anboto* astekaria, Deba Goieneko *Goienkaria* asterokoa, Lasarte-Oriako *Txintxarri* (astean bi aldiz kaleratzen dena) eta Hernaniko *Hernaniko Kronika* egunkaria (astearteetan izan ezik, egunero kaleratzen dena) dira. Durangaldeko *Anboto* astekariak, bailarako informazioa jorratzen du eta Berbaro Euskara Elkarteak kaleratzen du. Astero, 24 orrialdeko 8.000 ale botatzen dituzte. *Goienkaria* Deba Goieneko asterokoa da. Azken horretan, Deba Goienean zeuden aldizkariak biltzen dira eta hiru edizio ezberdin kaleratzen dira astero. 21.500 aleko tirada daukate eta hiru edizioekin 96 orrialde betetzen dituzte astero. Lasarte-Oriako Ttakun Euskara Elkarteak kaleratzen duen *Txintxarri* aldizkariak asterokoen artean beste eredu bat erabiltzen du. Astean bi aldiz kaleratzen da: astelehenetan kirolei buruzko monografikoa ateratzen dute eta ostiraletan hurbileko informazio orokorra. Egun bakoitzean, 7.100 ale kaleratzen dituzte. 2004ko otsailaren 16tik aurrera, *Goienkaria* ere bi aldiz kaleratzen da, astelehenetan eta ostiraletan. Abenduan, Deba Goieneko herri guztietan 0. zenbakia banatu zen etxe eta leku publiko guztietan herritarrei produktu berria aurkezteko. Ostiraletako *Goienkaria* ez bezala, *Asteleheneko Goienkaria* ez da bailarako etxeetara banatzen, harpidedun izan ezean, eta salgai dago egunkari-saltokietan 0,80 euroren truke. 32 orrialde dauzka *Asteleheneko Goienkariak* eta hiru atal nagusi: Gurean, Kirola eta Kultura. Produktu berri honek asteburuan bailaran gertatutakoa aztertu eta inork baino lehenago kaleratzea du helburua. 2004ko otsailaren 16an kaleratu zen 1. zenbakia.

Hernaniko Kronika Hernaniko Dobera Euskara Elkartearen egitasmoa da. Egunero, 3.000-3.200 ale kaleratzen dituzte eta normalean bi orrialde izaten ditu nahiz eta batzuetan 4 ere kaleratzen diren.

Goienkaria, *Anboto*, *Hernaniko Kronika* eta *Txintxarrik* egunari-papera erabiltzen dute eta tabloide formatua daukate. Banaketa masiboa eta doanekoa egiten dute gaur egun. Otsailetik aurrera, *Goienkariak* beste urrats bat egin du; izan ere, *Asteleheneko Goienkaria* saldu egiten da edota harpidetza bitartez banatzen da. Lau agerkariak, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioko bazkide dira.

Eskualdeetako egunkariak

2000ko ekainaren 23an, Dobera Euskara Elkartearen ekimenez, eskualde mailako informazioa soilik jasotzen duen lehen egunkaria argitaratu zen Hernanin, euskarazko prentsan ildo berri bat zabalduz. Bide bat ireki zuen Doberak *Hernaniko Kronikarekin*, herrian, egunero (astean bost egunez hasiera hartan, eta sei

egunez 2003ko udaberritik aurrera), herriko informazioa biltzen duen bi orriko egunkaria argitaratuz.

2001eko abenduan, *Euskaldunon Egunkariak* eta Galtzaundik *Tolosaldean Egunero* sortu zuten: Tolosaldeko herrietako informazio lokala bakarrik biltzen zuen eskualdeko egunkaria. 2003an, *Euskaldunon Egunkariaren* itxieraren ondoren eta ondorioz sortu den Euskarazko Komunikazio Taldea SAK eutsi egin dio *Egunkariak* abiatutako bideari. (Larrarte, 2003:40).

Tolosaldeko Hitza, *Oarsoaldeko Hitza*, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza* eta *Urola-Kostako Hitza* dira gaur egun kaleratzen diren eskualdeetako egunerokoak. *Tolosaldeko Hitza*, Galtzaundi Euskara Elkarteak, bailarako zenbait gizarte-eragileek eta Euskarazko Komunikazio Taldea SAK sortu dute. *Oarsoaldeko Hitza*, Erretereriako Lau Haizetara Euskara Elkarteak, Lezoko Orratx, Pasaiaiko Branka eta Abaraska eta Oiartzungo Hitz-Hots Euskara Elkarteek, eskualdeko zenbait gizarte-eragileek eta Euskarazko Komunikazio Taldea SAK. *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzaren* sortzaileak, Lea-Artibaiko 11 Barri Euskara Elkarteak, Mutrikuko Kalaputxi Euskara Elkarteak, tokiko eragileak eta Euskarazko Komunikazio Taldea SA dira. *Urola-Kostako Hitza*, bailarako 5 euskara eta kultur elkarte (Zarauzko Txaparro Euskara Elkarteak, Zestoako Danbolin-Zulo Kultur Elkarteak, Zumaiako Baleike Euskara Elkarteak, Azpeitiako Uztarria Euskara Elkarteak, Azpeitiako Gure Txeru Kirol eta Kultur Elkarteak), Urola-Kostako gizarte-eragileak eta Euskarazko Komunikazio Talde SA dira egitasmoaren sortzaileak.

Tolosaldeko Hitza, *Oarsoaldeko Hitza*, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza* eta *Urola-Kostako Hitza* egunero, astelehenetan izan ezik kaleratzen dira, 8 orrialde dituzte, bailarako informazioa lantzen dute eta egunkari-papera erabiltzen dute tabloide formatuan. *Tolosaldeko Hitzak* 7.500 ale kaleratzen ditu, *Oarsoaleko Hitzak* 5.000 ale, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak* 5.500 ale banatzen ditu eskualdean eta *Urola-Kostako Hitzak*, 10.000 aleko tirada izango duela aurreikusten da. Hasieran banaketa masiboa egiten da eta gero harpidetzaren bitartez banatzen da *Hitza* etxe eta leku publikoetara. Urtean, 40 euro kobratzen zaio egunero etxean jaso nahi duenari. Lau proiektu horietan parte hartu duten euskara elkarte guztiak, Hitz-Hots izan ezik, Topaguneko bazkide dira. Jada kalean dauden lau *Hitza* horiek kudeatzen dituzten enpresak EKT SAK eta euskara elkarteek sortu dituzte eta, tokian tokiko gizarte-eragileek enpresa horietan parte hartzea da asmoa. Izan ere, gizarte-eragileez sortutako hirugarren hanka hori ez dago erabat osatuta.

EKT SAKen aldetik, *Hitzak* sortzeko helburuak honako hauek dira:

- Eskualdeko komunikabideak osatzea euskararen normalizazioan laguntzeko.
- Elkar ezagutzea (prentsa nazionala eta aldizkari lokalak).
- Komunikabideen erreferentzialtasuna lortzea.

Horretarako, egunkari nazionalak, harremanak beti euskara taldeekin eta herrietako aldizkariekin lehenetsiko ditu, tokian tokiko aldizkariaren inguruan proiektu sendo eta profesionalen premia ikusten duelako. Orobat, aldizkariak eguneroko bihurtzeko salto kualitatibo horretan, EKT SAK badu zer eskaini: ezinbestekoa dela uste baitu, bailarako eguneroko egitasmoetan, egiturak profesionalizatzea eta kali-

tatea eskaintzea. *Hitzak* sortu diren eskualde batzuetan, bertako aldizkariekin aurrera egiteko zailtasunak daudela ematen du. Tolosaldean *Galtzaundi* hama-boskariak kalean jarraitzen du. Lea-Artibain *Hitza* sortu aurretik ez zegoen bertako aldizkaririk eta Oarsoaldean, *Lau Haizetara*, *Branka* eta *Orratx* aldizkariak desagertu egin dira momentuz, nahiz eta etorkizunean, hilabetekari gisa kaleratzeko asmoa dagoen. Urola-Kostan, *Txaparro* hamaboskariak, *Danbolin*, *Baleike*, *Uztarría* eta *Artzape* hilabetekariak kalean jarraituko dutela aurreikusten da, orain arte bezala.

Egunkari nazionala eta aldizkari lokalen artean izan dira bestelako esperientziak ere. Urola-Kostan 2004ko otsailaren 20an, EKT SAK *Urola-Kostako Hitza* kaleratu badu ere, 2002an izan zituzten hasierako negoziazioetan ez ziren akordioetara heldu. Urola-Kostako Karkara (Orio) eta Maxixatzen (Azkoitia) Euskara Elkartek ez dira sartu *Urola-Kostako Hitza* egitasmoan. Bestalde, 2000. urtean *Euskaldunon Egunkaria* saiatu zen Deba Goienean eguneroko bat sortzen eta egitasmoak ez zuen aurrera egin. Bi esperientzia horien ondorioz, negoziazio horietan parte hartu zuten kide batzuek ez dute onartzen egunkari nazionalaren jokaera herrietako prentsaren esparruan sartzeko erabili duen strategiagatik. EKT SAK ulertzen du prozesu batzuk astiroago joatea eta onartzen du, era berean, aurrera egin ez duten esperientzia horien ondorioz, zenbait tokiko aldizkarik egunkari nazionala txikiak jatera datorren makroegitura gisa ikustea. Hala ere, fruiturik eman ez duten egitasmoek atea irekita dituzte etorkizunean, *Hitzak* sortzeko. Izan ere, *Urola-Kostako Hitzaren* 0. alea urtarrilaren 17an banatu zen eta 2004ko otsailaren 20an *Euskaldunon Egunkariaren* itxieraren urtemugarekin batera kaleratu zen *Urola-Kostako Hitzaren* 1. alea.

Bere aldetik, Topagunea, Euskara Elkarten Federazioak, bazkide diren herri aldizkariaren artean, bailarako asteroko ekimenak bultzatu eta sustatuko ditu aurrerantzean; alde batetik, tokiko aldizkariaren zabalkunde masiboa ziurtatzeko eta, bestetik, aldizkaria egunero banatzeko finantziatorik ezin dela bermatu uste duelako Federazioak. Hala ere, Topaguneko bazkide izanik, egunerokoen bidea jarraitu nahi izan duten euskara elkarte eta aldizkariaren apustua errespetatzen du Topaguneko eta eguneroko hedabideekin elkarlanean aritzeko prest agertzen da. Bestalde, Topagunea, Euskara Elkarten Federazioak, bazkide diren elkarte batzuekin batera (Bierrik, Elgoibarko Izarra, Durangaldeko Herri Komunikabideak, Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Manuel Larramendi Bazkuna, Ermuko Euskal Birusa eta Maxixatzen) *Asteon Telebista Aldizkariaren* 0. zenbakia kaleratu zuen 2003ko abenduaren 5ean eta 1. zenbakia 2004ko otsailaren 20an. Hainbat gai jorratzen badira ere, telebistako programazioa da astekariaren ardatz nagusia. Astero 60.000 aleko tirada du *Asteonek* eta zabalkunde-esparrua Euskal Herri osoa da.

Elkarlanerako beharra eta zailtasunak

Egoera horren aurrean, prentsa nazionalako eta tokian tokiko aldizkarietako ordezkariaren ustez, bi esparruen artean urteetan izan diren gaizki ulertuak argitzeko ordua heldu da: errespetuzko harremanetan oinarrituz eta esparru bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz eta onartuz, elkarrekin lanean hasteko mementoa heldu da.

Prensa nazionalako ordezkariak eta tokian tokiko prentsan aritzen direnek euskarazko esparru komunikatiboa definitzeko beharra ikusten dute. Orain arte, bi esparruen artean egin den elkarlana puntuala izan dela onartzen dute eta horren inguruko hausnarketaren premia sumatzen da. Izan ere, tokian tokiko aldizkariak eta prentsa nazionala elkarrekin bizi eta lan egitera behartuta daude.

Bi esparruak, azpiegitura eta baliabideen aldetik elkarrekin lan egin dezakete eta elkarrekin lan egiteko prest agertzen dira.

Alde batetik, eskarazko prentsak, sektore gisa kontzientzia hartu behar duela uste dute elkarriketatuek eta gaztelaniazko prentsaren eskaintzaren parean jartzeko premia sumatzen da: produktuen eskaintza, publizitatean...

Bestalde, euskarazko prentsak oraindik ere dirulaguntza ofizialak beharrezkoak dituzenez, sektorearen aldetik gogoeta egin behar da, produktu erakargarriak eta irakurlearen gustukoak izan daitezzen eta euskarazko irakurle potentzialak euskarazko prentsara erakartzeko. Alegia, euskarazko prentsaren irakurle erreal bihurtzeko. Horretarako, erakunde ofizialen laguntza eta inplikazioa eskatzen da. Halaber, erakunde ofizialei, hainbeste diru inbertitzen duten sektorearen inguruko gogoeta egin dezaten eskatzen zaie.

Ikerketa hau egiteko, nazio-prentsa eta herri-prentsa edo tokian tokiko prentsaren arteko elkarlanerako proposamen hipotetiko bat luzatu zitzaizen elkarriketatu guztiei: **Demagun, herri-aldizkarietan lantzen den informazioa, astean behin edo gehiagotan prentsa nazionalaren barnean sartzea planteatzen dela. Aldizkari edo egunkari nazionalaren izaeraren arabera, informazioa moldatu eta era egokian landuko da, ez baita gauza bera, *Berriarako*, *Argiarako* edo *Zabalikerako* informazioa ematea.**

Proposamen horren aurrean, bi esparruen helburuak uztartzeko eta naturaltasunez elkarrekin lan egiteko espazioak bilatzeko zailtasunak ikusten dira. Tokian tokiko prentsa eta prentsa nazionalako ordezkarien ustez, elkarlanerako ekimenean bi esparruen helburuak uztartzea zaila da. Helburu orokorrak antzerakoak badira ere, helburu zehatzak eta batzuen eta besteen funtzionatzeko erak topo egiten baitute. Hala ere, *Zabalikeko* erredakzio-buruak, erakundeetan lanean ari diren teknikariak eta herrietako aldizkarien ordezkari batzuek, bideragarria ikusten dute egitasmo hipotetikoa. Beti ere, batzuen eta besteen berezitasunak onartuz eta errespetuzko harremanetan oinarrituz. Horrela bada, egitasmo hipotetikoa bi esparruentzat onuragarria izango litzatekeela aipatzen dute.

Topaguneko lehendakariak eta *Berriako* zuzendariak, aldiz, ez dute uste proposaturiko egitasmo hipotetikoa bideragarria denik. Topaguneko lehendakariak, gaur egun arte elkarlanaren inguruan izandako esperientziak ikusita, ez du argi ikusten prentsa nazionalak herrietako aldizkarien lana ordaintzeko zer daukan trukean emateko eta *Berriako* zuzendariak, ordea, argi dauka egunkari nazionala ezin dela herrietako informazioarekin hazi; bestela, ez litzateke egunero herri guztietako informazioa agertuko eta herri bateko informazioa astean behin agertuz gero, hango erosleak ez luke jakingo noiz datorren bere herriko informazioa eta, horrenbestez, erosteari utziko lioke. Hori dela eta, egunkari nazionalak bi bideak bata bestetik bananduta jorratzea erabaki du. Alde batetik, informazio nazionala nahi

duenarentzat *Berria* dago eta, bestetik, informazio lokalagoa nahiago dutenentzat, *Hitzak* daude. Beraz, argi dauka *Hitzak* direla elkarlanerako proposamen egokia.

Egoera horren aurrean, erakunde ofizialetan lanean ari diren teknikariek ez dute ondoegi ezagutzen lan honetan aztergai diren bi esparruen artean egiten ari diren urratsak, ezta orain arte prentsa nazional eta tokian tokiko prentsaren artean egin den elkarlana nolakoa izan den ere. Herrietako tokiko aldizkariak erakundee-kiko duten mendetasun ekonomikoa oso argi ikusten dute eta aldizkarien artean dauden aldeak oso nabariak direla sumatzen da. Zenbait produktu, hala nola *Anboto* eta *Goienkaria*, oso onuragarritzat jotzen dituzte erakunde publikoetako langileek, horrelako egitasmoetan hainbat aldizkari bildu direlako.

Etorkizunean, Eusko Jaurlaritzatik dirulaguntzak ez dira bikoiztuko. Komunikabideei banatzeko dagoen diru-poltsa, ahalik eta era egokienean banatzen ahaleginduko dira. Nafarroan eta Iparraldean egoera bestelakoa da. Zaila da elkarlanerako proiektuetan dirua inbertituko dela pentsatzea, gaur egun dauden aldizkarietara ozta-ozta ematen baitzaie dirua, batez ere, Iparraldean.

Nafarroari dagokionez, hurbileko informazioa lantzen duten 9 aldizkari kale-ratzen dira. Hizkuntza Politikatik urtero zabaltzen da dirulaguntzen lerro bat komunikabideetan euskararen erabilera sustatzeko. Deialdi horretan sartzen dira or har, herri-aldizkari, irrati eta telebistak. Diruz laguntzen da, bai euskararen erabilera baita horretarako kontratatzen diren bekadunak ere. Nafarroako Gobernuak 2002an 29 komunikabide lagundu zituen diruz, horietatik 19 euskara hutsez aritzen dira eta goian aipatu 9 herri-aldizkariak dirulaguntza jaso zuten. Ez, ordea, *Nabarra* aldizkariak, *Euskaldunon Egunkariak* eta *Euskalerrria Irratiak*. *Nabarra* aldizkariak 2002an Eusko Jaurlaritzatik jaso zuen dirulaguntza.

Nafarroan, egoera onena bizi duten aldizkariak *Ttapi-ttapa* hamaboskaria eta *Guaixe* astekaria direla esan daiteke. Izan ere, *Ttapi-ttapa* aldizkaria izan zen *Arrasate Pressekin* batera herri-aldizkariaren aintzindaria 1989an. Gerora, sarean agertu zen lehendabiziko euskarazko herri-aldizkaria izan zen, 1996ko irailaren 12an web orrialdea jarri zuten sarean eta 1998ko ekainean *Ttapi-ttapa* Telebista sortu zuten. Beraz, gaur egun *Goienarekin* batera Euskal Herrian tokian tokiko komunikabideen esparruan dagoen talde multimedia garrantzitsuenetakoa dela esan daiteke. Halaber, Bierrik Euskara Elkartek kaleratzen zuen *Guaixe* hilabetekariak 2004ko urtarrilaren 23an itxura berri eta astekari bilakatu zen, irakurleei zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz. Aldizkariaren euskarria alde batera utzi eta egunkariaren itxura hartu du. Prentsaren alorrean bi produktu zituzten (*Guaixe* hilabetekaria eta *Oixe* astekaria). Bi produktuetatik onena hartu eta bakar bat egin zuten. 4.500 etxetara heltzen da ostiralero Sakanako astekari berriua. Prentsaren alorretik kanpo ere badu zer esana Bierrik elkarteak. Duela 5 urte *Baleixe* irrati jarri baitzuen martxan.

Iparraldean, 1944an sortu zen *Herria* astekaria da hurbileko informazio jorrazten duen aldizkari bakarra gaur egun, Nafarroa Beherean, Lapurdin eta Zuberoan. 2002an Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso zuen. Hala ere, Iparraldeko euskarazko prentsa idatziaren egoera ezin esan daiteke ona denik. Iparraldeko euskara hutsezko aldizkari bakarrak, *Nanai eta Pika* haur-hilabetekariak eta *Maiatz* literatur hiruhilabetekaria baitira, *Herria* astekariarekin batera. Iparraldean zabaltzen diren

gainerako aldizkariak Hegoaldetik datoz: *Berría*, *Argia*, *Ttipi-Ttapa*, *Nabarra* besteak beste, baina gutxi hedatzen dira. Izan ere, Iparraldean euskarazko irakurleak gutxituz doaz. Gainera, euskaldunek ere, askok nahiago dute erdal aldizkariak irakurri (*Sud-Ouest*, *La Semaine*, *Le Journal du Pays Basque*, *Le Journal de St Palais*, *Le Miroir de la Soule*...).

Ezin ahaz daiteke, euskal irratiek lan handia egiten dutela Iparraldean eta oso entzunak direla, baina nahitaez, duten arrakastaren ondorioz, prentsa idatzia baztertu egiten dute. Elkarlanari dagokionez, *Herriak* lankidetzaz hitzarmena zuen *Euskaldunon Egunkariarekin*. *Herriak* astero argitaratzen zituen Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako herrietako berriak *Egunkariari* eskaintzen zizkion, *Egunkariak* bere web gunean zabaltzeko. Era berean, Iparraldean duela gutxi, prentsa elebiduna (frantsez-euskara) sortzeko ahalegina izan da, orain arteko aldizkari batzuk barnean sartuz: *Herria*, *Ekaitza*, *Enbata*... baina azkenean ekimenak ez du argia ikusi.

Iparraldeko botere publikoek eta udalek ez diote dirulaguntzarik ematen prentsa idatziari eta ematen dutenean oso diru gutxi izaten da. Horrez gain, Departamenduan egin den Hitzarmen Bereziak euskarazko prentsa idatzia bere finantziatutik kanpo utzi du.

Ezin ahaz daiteke, 2003ko otsailean *Euskaldunon Egunkariaren* itxierak euskarazko prentsan izan zituen ondorioak. Itxieraren ostean, Euskarazko Komunikazio Taldea SAK eskualdeetako egitasmoak sortzeko duen gaitasuna agerian utzi du eta itxieraren unea oso ondo aprobetxatzen jakin izan du bailarako egunerokoen sorrera azkartzeko. 2001ean *Tolosaldean Eguneroko* (itxieraren ostean *Tolosaldeko Hitza*) sortu zenetik, 2003ra arte egunerokoak kaleratzeko saiakerak izan baziren ere, ez zen eskualdeko egunerokorik sortu. 2003an ordea, beste bi *Hitza* sortu dira, *Oarsoaldeko Hitza* eta *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*, eta 2004ko otsailean *Urola-Kostako Hitzak* argia ikusi du.

Aldizkari lokalen urrezko aroa 1980ko hamarkadaren bukaeran *Arrasate Press* eta *Ttipi-Ttapa* aldizkariarekin hasi zenetik gaur egun arte, tokian tokiko prentsaren esparrua, kolore eta mota guztietako aldizkariak osatu dute. Azken hiru urteetan etengabeko aldaketak gertatu eta, gero eta proiektu gehiago, sendoago eta profesionalagoak sortu dira herri-informazioaren inguruan. Halaber, prentsaren esparruan azkenaldian sortzen ari diren hainbat proiekturen inguruko kezka nabaritzen hasia da, orain arteko aniztasuna kolokan jartzeko arriskuaren aurrean. Izan ere, 2003ko azaroan, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioak antolatua, Zamudioko teknologi parkean izan ziren *Tokiko Hedabideak Etorkizunera III Jardunaldi*etan, herrietako aldizkari, eguneroko, asteroko eta *Hitzen* inguruko eztabaida eta kezka agertu zen.

Tokian tokiko prentsa eta nazio-prentsaren artean elkarlanari ekiteko borondatea egon badago, adostasunik ez, ordea. Beraz, elkarriketa eta eztabaida dira aurrerantzean jorratu beharrekoak.

Bibliografia

- Aranguren, A. (1999): *Euskarazko Komunikabide lokalak Euskal Herrian doktorego tesia*. EHU, Leioa.
- Autore ezezaguna. (2003): "Euskaldun baten etxean astekari bat", *Topaberi Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren berripapera*, **24**, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.
- , (2003): "HITZA badator", *Baleike*, **117**, 2003/12.
- , (2003): "Oarsoaldeak badu bere 'Hitza' ", *Egunero*, 2003/05/21.
- Azpilikueta, A. (2003): "Bigarren hitza, Oarsoaldean", *Berria*, 2003/06/24.
- , (2003): "Tolosaldekoaren bidetik", *Berria*, 2003/06/24.
- Camacho, I. (2001): *Herri aldizkariaren funtzioa euskara normaltzeko prozesuan (1989-1999) doktore tesia*, EHU, Leioa.
- Irazustabarrena, N. (2003): "Herrietako Hitza". *Argia*, **1902**, 2003/07/8.
- Larrarte, J. M. (2003): "Eguneroko prentsa", *Tokiko Hedabideak etorkizunari begira. III. Jardunaldiak*, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño
- Mendizabal, J. (2002): *Herri komunikabideen egoera eta etorkizunerako erronkak mintegiko akta*, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.
- , (2002): *TEEF-ren oraina eta geroa, 2002ko uztailak 4 eta 11ko mintegiko ondorioak*, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.
- , (2003): *Tokiko aldizkariaren maiztasunari buruzko barne txostena*, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.
- Muxika, J. M. (2002): "Euskaraz idatzitako aldizkariaren errolda: 1960-1999", *Mediatika, cuardenos de medios de comunicación 9*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Solaberrieta, A. (2003): "Asteleheneko Goienkaria-ren zero zenbakia kalean izan zen atzo", *Berria*, 2003/12/23.